

Kissinger

Zeruko Argia, 675. zk., 1976-02-15: 6.

Gizon itzak badu berez errespetagarria den zerbait, eta itz hau gaurko erri indartsuenaren ordezkari batek esana bada, badirudi oraindik gehiago, erri-itzak adina, balio duela.

Baina, batetik, itzek berek badute berezkoa den balio bat.

Lehen, indartsuak ziren itz asko, "askatasuna", "demokrazia", "giza-eskubidea", "erri-eskubidea" eta "mendebaleko baloreak", debaluatu egin dira; lehen zilarrezkoa zen pezeta bezala.

Eta, bestetik, erri-itzak, ere bereizten ikasi dugu.

Erri batek zilarrezko pezetan bezala sakatu nahi digu Cortes-ek esandakoa, eta ezin da pasa; hala joan da pezeta paltsoa dolar-zilarraren laguntza bila.

Baina, kasu gero! Gertatu ohi da, etxean ondo korritzen duen dirua kanporatzen den bezain laster galeran asta.

Orain izango dugu proba, Kissinger mirarigileak *esan* duen itza, erriak *ematekoa* eta *betetzekoa* izan nahi badu, USAko Senadua baimena lortu behar du, eta hemen ikusiko dugu erriko bezala *erantzuten* duen etxean zilarra balio duen dollarra gaurko pezetaz kutsatu den.